

BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA HEZKUNTZAN



LARRUN #255

TEKNOLOGIA EZ DA NEUTRALA

EGILEA | **MIKEL GARCIA IDIAKEZ**
AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**
MAHAI-INGURUKO ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**
BARRUKO ILUSTRAZIOA | **SHUKARE OTERO**

Microsoftek eta bereziki Googlek ikasgelak konkistatu dituzte, eta gero eta gehiago dira hezkuntzarako haien zerbitzuak erabiltzen dituzten irakasle eta ikasleak. Konfinamendu garaiko tele-i(r)akaskuntza gainera pagotxa izan da multinazional hauentzat, eskoletako erabiltzaileen datuak salduz negozio itzela egingen baitute. Ikasgeletan sartzeko zirrikitu bikoitza aurkitu dute: batetik, Euskal Herriko administrazioek ez dute inongo estrategiarik gai honetan; bestetik, ikastetxe askotan teknologiarekiko dagoen kontzientzia faltak –tekno-

logia bat edo bestea erabiltzea neutrala balitz bezala– eta baliabide gabeziak alfonbra gorria jarri diete Microsoft eta Googleri, ez bada ikastetxe jakin batean gauzak aldatzeko ezagutza eta borondatea dituen irakasleren bat dagoela. Egon badira, baina, teknologia burujabe eta askeago baten aldeko apustua egin duten ikastetxeak, eta adibidea ekarri dugu hona. Pandemia garaiotan gaitasun digitalek duten garrantziaz, teknologia hezitzailearen bidea urratzeko beharraz eta arlo honetan hezkuntza komunitateak duen rolaz ere solastu gara Iñigo Balerdi, Diana Franco eta Txabi Perezekin.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.701 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2020ko irailaren 27a



■ **Oro har, zein da panorama Euskal Herriko ikastetxeetan? Ze gailu eta aplikazio darabilte ikasgeletan?**

IÑIGO BALERDI: Nik ezagutzen dudana da Lanbide Heziketaren errealitatea EAEn: autonomia finantzarioa du ikastetxeak eta erabakia ere ikastetxe bakoitzarena da, ez da goitik etortzen zaigun agindua, zer erosi: Google Chromebooka, edo eramangarria, edo mahai gaineko ordenagailua...

TXABI PEREZ: Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, administrazioaren rola pasiboa denez eta Eskola 2.0ak ekarri zuen ordenagailu uholdeaz geroztik estrategia finkorik ez dagoenez, gehienetan ikastetxeak

merkatuaren menpe geratzen dira. Hor Googlen zerbitzuek lortu dute ikastetxeetan arrakastatsu sartzea, doakoak eta erabilerrazak direlako hezkuntzarako, Chromebookak merkeak eta finantzazio errazekoak direlako... Ikastetxean baldin badago gaia kontrolatzen duen norbait eta orduak sartzeko prest dagoena, bestelakoa da errealitatea, baina halakorik ez dagoenean soluzio errazena da Googlera jotzea, enpresa batek hornitzea gailuz ikastetxea.

DIANA FRANCO: 1970eko hamarkadan, sistema-eragileen borrokan sartuta zeuden Apple eta Windows, eta orduan hasi ziren forma hartzen gure lan egiteko moduak inguru di-

gitalean. Microsoft enpresarena den Windowsek sistema-eragile pertsonalizatuak garatu zituen, enpresentzako baliabide aproposekin (ofimatika). Eta hezkuntzara ere halaxe transmititu zen, horregatik izan zen Microsoft Suite Office hezkuntzan sartzan lehena eta horregatik, beste sistema-eragile batzuen gaineko ezagutza eta formazio falta tarteko, arraro egiten zaigu adibidez LibreOfficeko dokumentu editatzailerak erabiltzea, Windowsen Word bertsio orokortua beharrean. Gure ohiturak ikasleei transmititzen dizkiegu.

Gaur egun, Googlek Google Suite paketea eskaintzen du hezkuntzan, eta irakasleei erakargarria eta ero-

Mahaikideak



**IÑIGO
BALERDI URRESTARAZU**

TOLOSALDEA LANBIDE HEZIKETAKO
IKT SUSTATZAILEA

1967an Alegian jaioa, Informatikan lizentziatua da. Urteak daramatza Lanbide Heziketan lan egiten eta urterik gehienak Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan. Informatika alorreko irakaslea eta ikastetxeko IKT sustatzailea da. Azken urteetan, pedagogiko digital ere ari da, gaitasun digitalen bidez ikasleen ikaskuntza prozesua eraginkorragoa izan dadin. Bestalde, EAEko Lanbide Heziketak ikerketarako duen Tknika zentroan kolaboratzaile dihardu, IKT kontuetan. Gaitasun digitalen bidez ikaskuntza ereduak nola indartu eta hobetu lantzen du, hori gero Lanbide Heziketako ikastetxeetan sustatuz.



**DIANA
FRANCO EGUREN**

HEZKUNTZAN ERE LIBREZALE
TALDEKO KIDEA

1977an lurretan jaioa, Enpresen zuzendaritza eta kudeaketan lizentziatua da. 2012an Social Sound kooperatiba txikia martxan jartzen lagundu zuen. Tabakalerako Hiriki-labs kultura digital eta teknologia laborategi hiritarraren garapenean parte hartu zuen, tartean bi argitalpenetan: *Ikasgelatik laborategira* eta *Teknologien ahotsak*. 2019an, Haritu, kultura digital eta teknologia laborategiaren prototipoa garatzen hartu zuen parte, Ede Fundazioko Suspergintza lantaldean. Durango Azokako Kabia ere koordinatzen du, eta Hezkuntzan ere Librezaletako kide da.



**TXABI
PEREZ ZABALA**

IKT AHOLKULARI TEKNIKOA
EAE-KO BERRITZEGUNE NAGUSIAN

1959an Bilbon jaioa, Kimika Zientzietan lizentziatu zen eta Matematikako irakaslea izan da hezkuntza publikoan. 1996az geroztik, hezitzaileei laguntzeko zerbitzuetan lan egiten du, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien aholkulari gisa. Irakasleen kompetentzia digitalak hobetzea helburu, haientzako preskakuntza antolatzeaz eta emateaz arduratzen da. Horrez gain, hezkuntzako webgune eta plataformak ere kudeatzen ditu, hala nola Moodle sistema edota hezkuntza-materialak partekatzeko eta irakasleen elkarlanean ireki berri duten plataforma: Amarauna.



PANDEMIAN, teknologiaren multinazionalak sekulako inbertsioak egin dituzte duten potentzia mantentzeko. Mezua argia izan da hezkuntza munduarentzat: "Gurekin ez duzue arazo teknikorik".

soa zaie, ez dutelako ezer instalatu ez eguneratu behar. Erabili eta kito. Gainera, Google Chromebookak sortu dituzte, Googlen zuzenean sartzeko, ordenagailuaren antza duen gailuaren bidez.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak hurreman historikoa du Microsoftekin, Microsoften paketeak sartzen saiatzen da, orain arte ongi etorri zaiolako. Nafarroako Gobernuak berriz, Googlekin du hitzarmena, beraz pentsatzekoa da Google Chromebookak eta Google Suite pakeak lehenetsiko dituela.

■ Baina Eusko Jaurlaritzak esana da beraiek jarritako ordenagailuek abiatze duala dutela (Linux sistema-eragile askea batetik, Windows bestetik) eta erabakia ikastetxearena dela.

T. PEREZ: Ez da zehatza. Hasteko, pandemia aurretik agindu zuten ordenagailu berri horiek erosiko zituztela, baina oraindik ez dira iritsi. Jaurlaritzak galdetu zien ikastetxeei: zer nahi duzue, Chromebook ala ordenagailua? Eta ikastetxe batzuek erantzun zuten ordenagailua nahi dutela, Linux sistema-eragilearekin. Horiei Jaurlaritzak esan die kasu horretan duala izango dela abiatzea, Microsoften Windows bai ala bai eramango dutelako ordenagailuek. Egia baita Microsoft lobbyak indar handia izan duela beti Eusko Jaurlaritzan, administrazioan Microsoft erabiltzen da denerako eta hezkuntzara ere hedatu dute joera. Bi indarren artean daude ikastetxeak: goitik, administratibotik, Microsoft eskaintzen zaie, eta behetik, merkatutik,

Google sartu da (etxeetan ere Android eta Googlen zerbitzuetara ohitu gara...).

D. FRANCO: Eta zaila du Microsoftek, Google hezkuntzan espezializatu delako eta suite oso bat egin duelako hezkuntzarako, eroso eta erakargarria. Emaila, artxiboak gordetzeko hodei oso handi bat, klaseak emateko aplikazio eta baliabideak (Classroom gisakoak) eta bideo-konferentziak egiteko Hungout-ak, dena doan eskaintzen du. Nolabait, Googlek arazo teknikoak gaintetik kentzen dizkio irakasleari, eta hori oso erakargarria da. Ez dute zerbitzaria mantendu behar, instalaziorik ez da egin behar, ez dute antibirusik sartu behar... baina atzealdea begiratu behar dugu: ekonomikoki doan da, bai, baina kostua handia da, eta hor jarri



behar dugu fokua: Google erabiltzearen kostua zein den garbi azaldu behar da, eta horretarako ulertu behar dugu Googlek etekinak eskuratzen dituela ikasleek bere zerbitzuak erabilia. Nola? Hirugarren enpresei ikasleen jokabideen datu agregatuak salduz (Amazon, Facebook, Apple... eta enparauek egiten duten gisan).

Hain juxtu, Hezkuntza Ere Librezale mugimenduak salatu du eskolan enpresa pribatuen aplikazio eta zerbitzuak erabiltzeak dakarrela, besteak beste, ikasle eta irakasleen pribatutasuna urratzea.

T. PEREZ: Googlek esaten du ezetz, berak ez dituela hezkuntzarako ematen dituen zerbitzuetako datuak erabiltzen eta pribatutasuna bermatzen duela (Nafarroako Gobernuarekin sinatu duen dokumentu batean nik neuk irakurri dut), baina datu agregatuak eta ezagutza bai saltzen ditu. Ez dute ikaslearen izena emango, baina ikasle horrek utzitako arrasto guttia bai.

D. FRANCO: Zergatik interesatzen zaizkio Googleri hainbeste haur eta

“**PANDEMIAK EGIN DUENA DA AGERIAN UTZI ZER NOLAKO GABEZIA ZUEN HEZKUNTZAK GAITASUN DIGITALETAN. NIK ESATERAKO, MOODLE SISTEMA LIBREARI BURUZ PRESTAKUNTZA EMAN DUT IRAKASLEEN ARTEAN, HORRETARAKO ERE BALIO IZAN DU PANDEMIAK**”

IÑIGO BALERDI

gazteen datuak? Oso moldagarriak direlako, eta marketina, publizitatea, jokabideak lantzen dituzten enpresentzat lehengai aproposa direlako (politikarientzat, enpresa komertzialentzat...). Gure datuen ustiaketa lehengai bezala erabiltzen duen enpresa baten esku jarri ditugu gure haurrak. Eta ikusi ez dugun Troyako zaldia izan da, orain ari gara konturatzen.

I. BALERDI: Ez da bakarrik gure ikasleen datu pertsonalak multinazionalen esku geratzen direla, baita gure ezagutza eta ezagutza horren kudeaketa ere. Gure ikastetxean, software librearen aldeko apustua-ren abiapuntua izan zen erabakitzea gure informazioa eta ezagutza aktibo estrategikoak direla, eta hortik eratorri zen gainerako guztia: zein aplikazio erabili informazioa gure artean partekatzeko, datuak non bildu (alegia, gure hodeian, ez Googlen hodeian)... Duela hamabost urte hasi genuen bide hori, baina uste dut administrazioak izan beharko lukeela Euskal Herrian sortutako ezagutza aktibo estrategikotzat hartu eta bide berari ekin beharko liokeena.

Eta azpimarratuko nuke hezkuntzaz ari garela. Imajinatzen dugu eskolako jangela bat non Nestlék erabakitzen duen menua? Ez, nahi dugu bertako elikadura osasungarria sustatuko duen jangela, hezkuntzari lotutako arloetan eredu-garri izan nahi dugulako; zergatik ez gaitasun digitaletan? Eskolak eredu-garri izan behar du erreminta digitalak hautatzerakoan ere, eta azaldu behar du zergatik hautatzen duen bat eta ez bestea.

T. PEREZ: Horri guztiari gehitu behar diogu bezeroak sortzen ari garela beraientzat, etorkizuneko kontsumitzaileak. Google eta multinazional pribatuekiko menpekotasuna sortzen ari garela ikasleen artean. Adibidez, lehen aipatu da tresna eroso eta erakargarriak dituela Googlek, baina Google Classroom pedagogikoki atzerapausoa da, kontua da tresnak berak lotzen zaituela.

D. FRANCO: Subiranotasuna galtzen ari gara, multinazionalen esku dagoelako azpiegitura. Sistema hau guztia mantentzen, txinatarrak alde batera utzita, bost enpresa daude munduan, eta bosten azpiegitura AEBetan dago. Itsaspetik datorren kable bidez konektatzen gara eta AEBetako zerbitzari-biltegietan gor-

detzen da dena. Googlen gabiltzan bakoitzean, ez gaude Euskal Herrian, AEBetan gaude, AEBetako legeen menpe. Ikusi Trump nola asaldatu den Tik-Tok aplikazioarekin. Zer-gatik? Datu horiek Txinara joango direlako. Eta berak badaki zein den datuen ustia ketaren potentziala jokatibideak bideratzeko, horrela heldu baitzen AEBetako presidente izatera.



“ZER-GATIK INTERESATZEN ZAIZKIO GOGLERI HAINBESTE HAUR ETA GAZTEEN DATUAK? MOLDAGARRIAK DIRELAKO, ETA MARKETINA, PUBLIZITATEA, JOKABIDEAK LANTZEN DITUZTEN ENPRESENTZAT LEHENGAI APROPOSA DIRELAKO”

DIANA FRANCO

■ **Eremu erakargarria bihurtzen ari al da hezkuntza, multinazionalen interesentzat? Pandemia garaian adibidez, sumatu al da multinazionalen presioa?**

D. FRANCO: Pandemia hasi zenean pentsatu nuen, “zeinen pozik egongo diren Google, Amazon eta horiek guztiak”. Pentsa, pandemian sekulako inbertsioak egin dituzte duten potentzia mantentzeko, etxean konfinatuta egonik gainjarri egin direlako herrialde ezberdinetako orduak, eta une berean AEBetako eta Europako herritarrak egon zitezkeen Netflix kontsumitzen edo bideo-konferentzia bat egiten; hori ez mozteko inbertsioa handia izan da. Eta lortu dute zerbitzuak ez ete-



tea. Mezua argia izan da hezkuntza munduarentzat: “Gurekin ez duzue arazo teknikorik”. Aldi berean, eta kontrako norabidean, subiranotasun galerari egiten dion kalteaz ohartarazi dute hainbat eragilek: Hezkuntzan ere Librezale, Xnet, Shoshanna Zuboff, Inés Bebea...

T. PEREZ: Jakina multinazionalentzako eremu interesgarria dela hezkuntza. Eta Googlek oso ongi jokatu du partida: Google Suite paketeak adibidez boterea ematen dio administratzaileari, kasu honetan irakasleari; pare bat klik egin eta administratzaileak dena ikusi dezake, beste ikasle eta irakasleek idazten duten guztia. Baina konturatu behar gara botere hori hartzea aldi berean ardua handia dela.

■ **Nola eragin dio tele-i(ra) kaskuntzak gaiari?**

Multinazionaletara jotzeko joera indartu da ala gogoetatzeko eta beste bide batzuk urratzeko baliatu da?

T. PEREZ: Konfinamendua bat-batean etorri zen, eta oro har ikusi dut irakasleek oso ongi erantzun diotela egoerari; aldiz, administrazio publikoaren erantzuna epela izan da

eta ez du aparteko baliabiderik jarri gaitasun digitaletan irakasleak formatzeko. Berritzeguneetako aholkularien esku geratu da ardura hori, besterik gabe.

I. BALERDI: Pandemiak egin duena da agerian utzi zer nolako gabezia zuen hezkuntzak gaitasun digitaletan, kontzientzia hartu dugu zeinen garrantzitsua den gaitasun digitalak lantzea. Hezkuntza, finean, gehiago digitalizatu da, eta beraz, Google-eta indartu diren bezala, alternatibak ere indartu dira, beste maila batean. Nik esaterako, klase bat kudeatzeko erabiltzen den Moodle sistema libreaki buruz prestakuntza eman dut Lanbide Heziketako irakasleen artean, eta erraminta hau lehen aldiz ezagutu dutenak konturatu dira zeinen baliagarria den; horretarako ere balio izan du pandemiak. Edo pandemia honetan, zeinek ez du Jitsi erabili? Software librea da, eta orain lehen aldiz ezagutu du askok.

D. FRANCO: 6 urteko alaba baten ama naiz eta konfinamenduan irakaslea oso arduratuta ikusi dut haurraren ikasketekin, bazirudielako hezkuntza sistema ezin zela gelditu, ezin zirela gauzak lasaiago hartu, eta presio guztia gurasoengana joan da.



Nor zegoen etxean laguntzeko? Google eta halakoak.

Aldi berean, ordea, sumatu dut teknologiarekiko interesik ez zuen jende bat (esaterako hezkuntza eredu alternatiboak) pandemiarengatik gerturatu egin dela teknologiarara eta ikuspegi kritikotik egin duela hurbilketa. Hezkuntza modu telematikoan planteatu behar bada, zein alternatiba dauden aztertu nahi duen jendea da.

Herritar kritikoak hezi nahi ditugu. Teknologiarekiko, nola hezten dira ikasle kritikoak?

D. FRANCO: Eskola publikoko guraso bezala, hezkuntza kritikoa ezagutu dut: generoa, elikadura, ingurumena... jorratzen dituzte botere harremanak kontuan hartuz, baina teknologia neutrala bailitzan lantzen da, hor eztabaidarik ez balego bezala. Eta nire ustez hori gertatzen da hezkuntzak ez duelako mehatxu gisa ikusten aipatu dugun guztia, bestela



**“GOOGLE SUITE
PAKETEAK BOTEREA
EMATEN DIO
ADMINISTRATZAILEARI,
KASU HONETAN
IRAKASLEARI; PARE
BAT KLIK EGIN ETA
ADMINISTRATZAILEAK
IKASLE ETA IRAKASLEEK
IDAZTEN DUTEN GUZTIA
IKUS DEZAKE. BAINA
KONTURATU BEHAR
GARA BOTERE HORI
HARTZEA ALDI BEREAN
ARDURA HANDIA DELA”**

TXABI PEREZ

kritikoa izango zela pentsatzen dut. Horregatik saiatzen gara Hezkuntzan Ere Librezaletik ikusarazten teknologia ez dela neutrala. Darabilgun teknologiaren atzean dagoena ulertzen ez badugu, ez dugu ezer egiteko beharrik ikusiko.

I. BALERDI: Hain zuzen neutrala ez delako inportantea da terminologia zaintzea: ohitura dago adibidez eskolan “testu bat idatzi” esan beharrean, “Word bat idatzi” esatekoa, edo “bidaliko dizut Gmail bat” esatekoa, emaila esan beharrean, “Excel bat egingo dut”, kalkulu orria esan beharrean...

T. PEREZ: Software librearen gehiegitan lotu da software bat garatzearekin edo programatzearekin, eta gai konplexua dirudienez paso egiten du askok, baina kontua ez da programatzen jakitea, software librearen filosofia hezkuntzara ere eramatea baizik: egiten duzuna partekatzea, edukiak lankidetzan sortzea, be-

rrerabilitzearen garrantzia... Kontzeptuak landu behar dira, haurrei berdin zaie horri software libre edo beste nolabait deitzen diozun.

I. BALERDI: Hori da, kontzeptuez eztabaidatu beharra dago. Guk esaterako jabetza intelektualaz hitz egiten dugu eskolan: gure edukietarako Copyright nahi dugu? Copyleft? Creative Commons? Euskaldunon komunitatearentzat, euskarazko edukiei Copyright jartzea da egokiena? Herri bezala ez al zaigu komeni edukiak askatzea?... Horretaz guztiaz hitz egiten baduzu, pixkanaka giro jakin bat eta kontzientzia jakin bat sortzen duzu ikasgelan.



“SOFTWARE LIBREKO ZERBITZUAK ERABILTZEA IKASLEARI ULERTARAZTEN DIO HODEIA EZ DELA GAUZA ETereo BAT, KOSTE BAT DUEN AZPIEGITURA BAT DELA, ETA AZPIEGITURA HORI KONTROLATZEA BOTEREA ESAN NAHI DUELA. GARAI DIGITALEAN MUNDUAK NOLA FUNTZIONATZEN DUEN IKASTEN DU”

DIANA FRANCO

D. FRANCO: Egun bizi dugun digitalizazioa eta automatizazioa ez da etengo; alderantziz, COVID-19ak bizkortu egin du prozesua eta pandemiak automatizazioa areagotzera bultzatuko ditu enpresa ugari. Eta gu zertan ari gara? Ezagutza hori guztia AEBetara bidaltzen. Eskola ez da enpresa, baina teknologiak nola funtzionatzen duen eskolan ulertzen du ikasleak, eta ikasgelan zer erabiltzen duen, hori barneratuko du. Software libreko zerbitzuak erabil-

tzeak ulertarazten dio hodeia ez dela gauza etereo bat, koste bat duen azpiegitura bat dela, eta azpiegitura hori kontrolatzea boterea esan nahi duela. Neurri batean, garai digitalean munduak nola funtzionatzen duen ikasten du, teknologiaren ideia errealagoa ematen dio. Eta ideia errealago batetik hobeto eragin dezakezu errealitatean, fikzio batetik baino. Hori da jokoan dagoena.

■ Iñigo, zuek urte asko daramatzazue ikastetxean software libre instalatzen eta ikastetxeko politikaren parte da dagoeneko. Zein bide egin duzue?

I. BALERDI: Duela hamabost bat urte, erabaki genuen softwareak-eta inplementatzen hasi aurretik ikastetxearen politika zehaztu behar genuela, inplementazioari zentzua eman eta estruktural bilakatu (irakasle batek ezin du bere kabuz kontrako norabidea hartu): erabaki genuen, aurretik azaldu dudan moduan, hezkuntza komunitatearen edo ikastetxearen ardura zela bertan sorturiko informazioa eta ezagutza kudeatzea, eta hortik hiru hanka eratorri ziren: konfidentzialtasuna (informazioa gure ikastetxeko hodeian lekututa, eta ez atzerriko zerbitzari batean, hobeto bermatzen da konfidentzialtasuna), osotasuna (eduki horien manipulazioa ere errazago saihesten da ikastetxeak berak gordetzen badu edukia) eta eskuragarritasuna. Azken puntu horrek lan handiagoa eman digu, Googlek dena eskura jartzen dizulako, eta sortu genuen Informazioaren Segurtasun Foroa. Foroan gaude zuzendaria, kalitate arduraduna, IKT sustatzailea, sare kudeatzailea eta idazkaria, ikuspegi ezberdinetatik informazioaren gestioaz gogoetatzeko. Ondoren klaustrora edo zuzendari-tzara eramaten dira foroaren proposamenak, erabakiak hartzeko.

Gure helburuetarako, ikusi genuen software libreko hiru produktu nagusi zirela egokienak: posta (eta agenda

eta abar) erabiltzeko, Zimbra; klasea kudeatzeko, Moodle; eta informazioa artxibatze hodei gisa, NextCloud. Eta NextCloudak aukera ematen du, adibidez, federatzeko: gure ikastetxean irakasleok gure NextCloud hodeia edo artxiboa dugu, ikasleak euren izateko bidean dira, eta federatu egingo ditugu bi hodeiak, edukiak partekatze, berdin NextCloud darabilten beste ikastetxe batzuekin. Googlek hodeiak ez du federatzeko aukerarik ematen, dena zentralizatua duelako. NextCloudek, gainera, komunitate ikaragarria du atzean, besteak beste aplikazio txikiak garatzen dituen NextCloudearentzat.



“ERABAKI GENUEN IKASTETXEAREN ARDURA ZELA BERTAN SORTURIKO INFORMAZIOA ETA EZAGUTZA KUDEATZEA, AKTIBO ESTRATEGIKOA DIRELA, ETA HORTIK ERATORRI ZEN GAINERAKO GUZTIA. ETENGABEKO IKASKETA DA, DENBORA ESKATZEN DU, BAINA ALDI BEREAN EZAGUTZA GURE ESKU DAGO, INDARRA EMATEN DIGU”

IÑIGO BALERDI

Zimbra, Moodle eta NextCloud, hiruen arteko integrazioa lantzen ari gara ikastetxean, gure oinarriak direlako, eta horrek edota zerbitzaria gestionatzeak lana ematen digu, etengabeko ikasketa da, denbora eskatzen du, baina aldi berean ezagutza ere gure esku dago, indarra ematen digu. Hiru horiez gain, dena den, hezkuntzarako zerbitzu libre ugari dago. Proiektuak kudeatzeko



Edukiak gordetzeko, NextCloud hodeia erabiltzen dute Iñigo Balerdiren ikastetxean: "Irakasleok gure NextCloud hodeia edo artxiboa dugu, ikasleak eurena izateko bidean dira, eta federatu egingo ditugu bi hodeiak, edukiak partekatzeko, berdin NextCloud darabilten beste ikastetxe batzuekin. Googleren hodeiak ez du federatzeko aukerarik ematen, dena zentralizatua duelako. NextCloudek, gainera, komunitate ikaragarria du atzean".





Tolosaldea Lanbide Heziketako esperientzia kontatu digu Balerdik: “Gure helburuetarako, ikusi genuen software libreko hiru produktu nagusi zirela egokienak: posta erabiltzeko, Zimbra; klasea kudeatzeko, Moodle; eta informazioa artxibatzeko hodei gisa, NextCloud”.

Canva estiloko software librea bada-go, GoogleMaps beharrez OpenStreetMap aplikazioa erabili daiteke, Talk eta Jitsi zerbitzuak ere badira komunikatzeko...

Ikastetxearen politika da hortaz. Ongi egokitzen al dira ikastetxera iristen diren irakasle eta ikasle berriak?

I. BALERDI: Jende asko Googleko zerbitzuetara dago ohituta, ez dituzte guk erabiltzen ditugun zerbitzuak ezagutzen eta batzuetan borrokatu egin behar da, ulertarazi behar zaie Zimbra, Moodle eta NextCloud aplikazio nuklearrak dira gurean, ikastetxean erabiliko direnak. Berriei gaiaren inguruko ikastaroa ematen diegu eta batzuk ideologikoki prestuago datoz; kontzientziario lana inportantea da.

Esaten diegu: “Porruen antzera da, nire baratzean ereindakoak okertuta atera daitezke, dendan baino zikinago, eta lana emango dit garbi-

tzeak, baina goxoagoak daude, nire porruak dira”.

Hori Lanbide Heziketan. Lehen eta Bigarren hezkuntzan ere software librearen aldeko apustu orokorra egitea posible litzateke?

T. PEREZ: Berritzeguneetatik gure erronka beti izan da Iñigok ongi azaldu duen ikuspegi orokor hori lantzea: ikastetxe gisa, talde bezala, zer nahi dugu? Eta horren arabera jokatzea. Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean ez dira Iñigoren ikastetxea bezain urrutira ailegatuko, baina gutxienez egin dezakete, hausnartu zer eta zertarako egiten dituzten gauzak. Beharbada konturatuko dira ordenagailua hainbeste erabiltzea ere ez dela beharrezkoa, edo eskatu gabe ikastetxeak jaso duen arbel di-

“

**“IKT ARDURADUNAZ
HITZ EGITEN DA, BAI,
BAINA FIGURA HORI EZ
DA EXISTITZEN! EZ DAGO
HORRETARA BIDERATUTAKO
ORDURIK IKASTETXEETAN,
ETA BORONDATEA
ETA INTERESA DUEN
IRAKASLEREN BAT EZ
BADAGO, JAI DU ESKOLAK”**

TXABI PEREZ



gital hori ez dutela behar... Beste arlo batzuetan curriculumak eta metodologiak ongi aztertzen diren moduan, hausnartu behar dugu konpetentzia digitalen inguruan, datorrena bere horretan hartu ordez.

Arazo handia dugu, ordea, gure hezkuntza sisteman: begira zer lan handia egin duzuen ikastetxean, Iñigo, eta beste ikastetxe askok ez dute horren berri. Edo gu Berritzegunean ari gara gai hauek lantzen, baina ez dugu erabakimen eskumenik, erabaki teknologikoak Hezkuntza Sailburuordetzan hartzen dira, eta hor ez dakit badakiten ume bat zer den ere. Ez dut esaten gutxiesteko, baina sistema ez da aldatu azken hogeita hamar urteotan. Jaurlaritzan ez dago talderik gai hauen gainean erabakiak hartzeko, ez delako apusturik egiten, ez dago perspektiba-

rik ez estrategiarik. EAeko berritzeguneetan, duela 25 urte hogeitaholokulari ginen, eta orain, gertatu den iraultzaren ostean, hogeitaz jarraitzen dugu. Eta ikastetxeetara bagoaz, IKT arduradunaz hitz egiten da, bai, baina figura hori ez da existitzen! Ez dago horretara bideratutako ordurik ikastetxeetan, eta borondatea eta interesa duen irakasleren bat ez badago, jai du eskolak, zer eta IKT beharrak asko handitu diren garaiotan. Pentsa, Ibarretxe lehendakariaren sasoiaren iragarri zuten bat ez, bi IKT arduradun izango zituela ikastetxe bakoitzak, bat teknologiaren alde teknikoaren arduradun eta bestea teknologiaren alde pedagogikoa zaintzeko, bada lekutan gaude.

I. BALERDI: Lanbide Heziketan, EAEn 40 bat IKT pedagogo gaude, gaitasun digitalen inguruan gogoetatzeko.

“

“KONTZEPTUEZ EZTABAIDATU BEHARRA DAGO. GUK ESATERAKO JABETZA INTELEKTUALAZ HITZ EGITEN DUGU ESKOLAN: EUSKALDUNON KOMUNITATEARENTZAT, EUSKARAZKO EDUKIEI COPYRIGHT JARTZEA DA EGOKIENA? HERRI BEZALA EZ AL ZAIGU KOMENI EDUKIAK ASKATZEA?... HORRETAZ GUZTIAZ HITZ EGITEN BADUZU, PIXKANAKA GIRO JAKIN BAT ETA KONTZIENTZIA JAKIN BAT SORTZEN DUZU IKASGELAN”

IÑIGO BALERDI

“

“ALABARI GMAIL KONTUA IREKI DIOTE. POSTA ALTERNATIBOAK BADIRELA AZTERTU ERE EZ DU EGIN IKASTETXEAK? SUSMOA DUT TEKNOLOGIAREKIKO HARTZEN DITUGUN ERABAKI ASKO EROSOTASUNAK GIDATZEN DITUELA, ETA EROSOTASUNA EZ DA BETI ERABAKIAK HARTZEKO IRIZPIDERIK ONENA”

DIANA FRANCO



Pandemia garajan, ARGIAren pabilioitik mahai bat atera eta kanpoan egin dugu solasaldia.

Ikastetxeetan IKT beharrak handitu direla aipatu duzue. Konfinamenduan gertatzena ikusita, pentsatzekoa da etorkizun hurbilean ere beharrak handituko direla.

T. PEREZ: Ikastetxe bakoitzean COVID arduraduna iragarri du administrazioak, baina aurreikusten den panorama izanik tele-irakas-kuntzan orduak sartu beharko direla maiz, nola ez da jarri aholkulari teknologiko bat ikastetxeetan? Nori eskatuko diote laguntza irakasleek, zein izango dute erreferente? Administrazioak, gainera, akats handi bat dauka: softwarea edo zerbitzaria edo dena delakoa instalatu eta gero ez du inongo jarraipenik egiten, instalatzearekin bakarrik nahikoa balitz bezala. Begira, duela urtebetetik prest genuen arren, orain atera du Amarauna zerbitzua Jaurlaritzak, irakasleek euren esperientziak, artxiboak eta ekarpenak partekatzeko, baina ez du baliabide bakar bat martxan jarri! Ez bultzatzeko, ez zabaltzeko, ez mantentzeko. Ni nago Amaraunaren administrazaila eta hor konpon, baina zerbitzu hau mantentzeko jende gehiago behar da.

Hori esanda, nabarmendu nahi

dit ekimen oso interesgarriak aurkitu daitezkeela ikastetxeetan. Badago mugimendua, baina lehen aipaturikoa gertatzen da, esperientzia horiek sarri isolatuta geratzen direla, batzuetan ez dugulako elkarren berri.

“

**IKASTETXE BAKOITZEAN
COVID ARDURADUNA
IRAGARRI DU
ADMINISTRAZIOAK,
BAINA AURREIKUSTEN
DEN PANORAMA IZANIK
TELE-IRAKASKUNTZAN
ORDUAK SARTU BEHARKO
DIRELA MAIZ, NOLA EZ
DA JARRI AHOULKULARI
TEKNOLOGIKO BAT
IKASTETXEETAN?”**

TXABI PEREZ

D. FRANCO: Gurasooi ere presio egitea dagokigu, gauzak mugitzen has daitezen.

T. PEREZ: Gaur bertan etorri zait aita bat, esanez ikastetxean esan

diotela halako Chromebooka erosi behar duela eta gailu ona al den galdetu dit, baina ez du erabakia auzitan jarri. Gainera, guraso bezala esan dezakezu ez duzula halakorik erosiko, baina bakarria bazara salduta zaude. Eta hori ere salagarria da, ikastetxeak eskatzea gurasoei seme-alabentzat ordenagailuak erosteko. Ikastetxe bezala erabaki baduzu ordenagailuak hezkuntza baliabideak direla, ikastetxeak berak jarri behar ditu baliabide horiek, administrazioari finantzazioa eskatuta.

D. FRANCO: Alaba oraindik txikia da eta ordenagailua erosteko ez dinate eskatu, baina papertxo batekin iritsi zen etxera: “Hau da zure alabaren Gmail kontua”. Tira, badakit ez dagoela asmo txarrez eginga, baina posta alternatiboak badirela aztertu ere ez du egin ikastetxeak? Susmoa dut teknologiarekiko hartzen ditugun erabaki asko erosotasunak gidatzen dituela, eta erosotasuna ez da beti erabakiak hartzeko irizpiderik onena.

T. PEREZ: Hori da, ez dago batere kontzientziarik. Seme-alabari argazki bat atera ahal izateko baimena eskatzen dizute, baina Gmail kontua irekitzeko ez. ●

Alternatibaren aldeko manifestua

Hezkuntzan ere Librezale taldea Euskal Herriko hainbat guraso, ikasle, irakasle eta eragilek sortu zuten 2017an, “enpresa pribatu erraldoiek gure eskoletako digitalizazio prozesuetan zeukaten presentzia gero eta handiagoak kezkatuta”.

Taldearen hitzetan, Eusko Jaurlaritzak Googlen eta Microsoften esku utziko ditu EAEko milaka ikasleren identitate digitalak. “Hezkuntzako beste esparruetan ere egoera antzekoa da, Iparraldean, Nafarroan edo Ikastolen Elkartearen

besteak beste. Bestalde, Chromebook-en hedapena ikastetxeetan gero eta zabalagoa da, askotan erakundeek beraien bultzatuta”.

Euskal hezkuntzaren egoera kontuan hartuta, bost puntuko manifestua kaleratu dute:

1. Gure ikasleen datuak enpresa pribatuen esku uzteak ikasleonen pribatutasuna bermatzea ezinezko egiten du. Entitate publikoek bultzatuta gure ikasleak produktu bilakatzeko inplikazio larriak ditu.
2. Bost urteko bizitza bakarrik bermatzen duten Chromebook gailuetan inbertsioa egitea arduragabekeria da, zaharkitzapen programatua berrerabilpenaren kontra baitoa.
3. Gure ikasleek erabiliko duten gailuetan euskararen presentzia enpresa pribatuen interes eta gi-

dalerroen menpe uztea gure hezkuntzaren kontrako erabakia da. Are eta gehiago, Chromebook gailuetan. Gaur egun, hainbat atal ez daude euskaraz.

4. Ikasleak behin eta berriro tresna berdinen erabilerara mugatzea, hezkuntza digitala murriztea da. Gaitasun digitala, Europa eta Euskal Herriko hezkuntza legeen arabera, ikasleek lortu beharreko oinarrizko gaitasuna da, eta tresna horietara mugatzeak ez du inola ere hau bermatzen.

5. Hezkuntza komunitatearengan tresna hauekiko dependentzia sortzeko arriskua arazo larria da. Enpresa pribatuen produktuen erabiltzaile eta bezero potentzialak sortzen ari gara, instituzioek bultzatuta.

“Software librean bezala, jakintza kolektiboa eta estandar libreak bultzatzen dituzten alternatibak egon badaude, eta momentua da digitalizazio zentzudun, jasangarri eta arduratsu baten alde egiteko”, aladarrikatzen dute.

Hala, administrazioari eskatu diote digitalizazio prozesuan gidaritza eta laguntza teknikoa egin dezan, “azpiegitura libre, jasangarri eta ahaldunduko gaituena ezartzeko, eta ez dezan soluzio komertzial interesatu baten esku utzi gure ikasleonen hezkuntza digitala”.





Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

Bizi nahi duen herria!